

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

#### 135/2024 Foru Agindua, apirilaren 5ekoa. Garbiñe Zabaleta Arambururen kargu uztea, berak hala eskatuta, Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostuan, bitarteko gisa

Martxoaren 10eko 82/2023 Foru Aginduaren bidez, Garbiñe Zabaleta Aramburu bitarteko izendatu zen Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, lanpostu hori hutsik baitzegoen titularra erretiratu zenetik.

Alkatetzaren 2024ko martxoaren 21eko idazkiaren bidez, udalak Garbiñe Zabaleta Aramburu kargutik kentzeko eskatu zuen, funtzionarioak berak eskatuta, 2024ko apirilaren 12ko ondorioekin.

Lehen aipatutako martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoak izendapena errebokatzeko eskumena ere badaukate. Artikulu bereko 2. apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagozkion idatzoharra egingo duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan aipatzen den erregistro integratuan.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betez, Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioeko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenarekin lotuta, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoaren martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez, dagozkidan ahalmenak baliatuz, horrenbestez, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Garbiñe Zabaleta Aramburu, berak hala eskatuta, Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, bitarteko gisa betetzen baitzuen lanpostu hori, Lurralde Orekaren foru diputatuaren martxoaren 10eko 82/2023 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Kargu uzte horrek 2024ko apirilaren 12tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Erriberagoitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, dagozkion ondorioetarako, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 5a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua  
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria  
LAURA PÉREZ BORINAGA